

EUSKERA ETA LITERATURA ARLOAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Bentades Ikastetxea	Kodea:	014777	Ikasmaila:	1. maila
Etapas:	Lehen Hezkuntza	Ziklo-maila:	1. zikloa, Lehen Hezkuntzako 1. maila		
<ul style="list-style-type: none"> • Arloa/Gaia • Eremua • Diziplinarteko proiektua • Beste batzuk 	Euskera eta Literatura	Irakasleak:	Ander Goitia eta Iñigo Sarria		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Programazio didaktikoaren justifikazioa:

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen.

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Irteera-profilaren abiapuntua da konpetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, zenbait erronkei aurre egin ahal izango die.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoiak ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketen aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibiltatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz

eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta jakintzagai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Hurrengoak dira eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak:

- **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du hainbat esparru eta testuingurutan modu koherente eta egokian elkarrekintzan jardutea, ahoz, idatziz, siglatuan edo multimodalean, eta hainbat komunikazio-helbururekin.
- **Konpetentzia eleaniztasuna:** Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du.
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako konpetentzia:** Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniartzako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.
- **Konpetentzia digitala:** Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoa eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekin elkarreragitea ere.
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa:** Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta

etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko.

- **Herritartasunerako kompetentzia:** Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta.
- **Ekintzaitza kompetentzia:** Ekintzaitzarako kompetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia:** Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako kompetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea.

Justifikazio legala aldera batera utziz, eskolako testuinguruari buruz hitz egingo dugu. Bentades Ikastetxea Mungian kokatzen den eskola bat da, uribe kosta zonaldean. Eskola honetako familiak maila sozioekonomiko ertaina dute eta datu soziolinguistikoei dagokienez esan dezakegu nahiz eta Mungia herri euskalduna izan, gero eta etorkin gehiago daudela eta hau ikastetxean isladatzen da.

Ikastetxe honetan 700 ikasle inguru ditugu haurtzaindegitik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte. Maila bakoitzean bi lerro daude. Ikasketak D ereduan gauzatzen dira.

Ikastetxeko baliabide materialak hurrengoak dira Lehen Hezkuntzan. Ikasle talde bakoitzak bere gela dauka eta horrez gain, musika gela, plastika gela, liburutegia, jantokia eta areto nagusia ditugu. Solairu batetik bestera igotzeko behar izatekotan igogailu bat daukagu. Beste alde batetik, heziketa fisikoa egiteko patioaz gain, eskolako sotoa eskuragarri daukagu. Hura espazio oso handia eta estalia da. Normalean heziketa fisikorako erabiltzen da baina antzerkiak edo tailerrak egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, geletako baliabide materialak hurrengoak dira. Ikasgela guztietan bi arbel ditugu: klarionazkoa eta digitala. Ikasleek liburuak dituzte zenbait irakasgaietan, baina euskerako arloari dagokionez, irakasleek sortutako materiala erabiltzen dute. Honez gain, 1. mailako bi gelek banakako ordenagailuak partekatzen ditugu. Ikasleek matematikako aplikazioa egiteko erabiltzen dute baliabide digital hau.

Baliabide pertsonalei dagokienez, Lehen Hezkuntzan 15 irakasle daude tutore eta irakasle espezifikoak gehituz. Beste alde batetik,

orientazio talde bat dugu eta bertan 6 espezialista daude. Horrez gain eskolako orientatzaile eta psikologoa dugu behar izatekotan. Irakasleak ez diren beste profesional batzuk ere lan egiten dute eskolan gure egunerokotasuna errazago izateko, adibidez: jantokiko langileak, eskolako atezainak, idazkariak, zuzendariak, eta abar.

Ikasle batzuen beharrezanean erantzuna emateko Berritzegunetik ere zenbait espezialista etortzen dira eskolara, adibidez: logopega, fisioterapeuta, eta abar.

Eskolan zenbait proiektuetan murgilduta gaude baina maila honetan ikasleek ez dute denetan parte hartzen. Hurrengoak dira:

- Agenda 30.
- Euskera eta normalkuntza
- Hizkuntza hirueleduna
- Bizikidetza
- IKT eta metodologia berriak
- Hezkidetza

Pasaden kurtsoko urteko memorian argitaratu zen bezala, hurrengoak dira etapa moduan ikasturte honetara begira planteatu genituen hobekuntzak:

- Metodologiari dagokionez, berrikuntzak sartzen jarraitu nahi dugu eta hasitako hobekuntza bidearekin jarraituko da.
- Euskerarekin lotuta gabezia ugari identifikatu ditugu eta hauei erantzuteko metodologia aldaketa bat proposatu da. Kurtso honetan zehar, irakasleok sortuko dugu materiala ziklo bakoitzari egokituta. Era horretan, ikasleak modu dinamiko eta erakargarrian hizkuntza bereganatu dezaten.

Programazio honen kalitatea eta emaitza bermatzeko, helburu errealistak ezarri behar ditugu. Horretarako irakasgai hau ematen duten irakasleak batu dira eta haien ikasleen errealitateara moldatu.

Kurtsu honetan, beste guztietan bezala bi lerro ditugu. Gela batean 17 ikasle daude eta bestean 16. Ikasle gehienak bertan jaiok dira nahiz eta ikasle askoren kasuan testuinguru euskaldun bat ez izan, zenbait atzerritar daude maila honetan, batzuk kurtsu honetan heldu dira eta beste batzuk ihaz.

Beste alde batetik, premia bereziko 3 ikasle ditugu gela bien artean banatuta. Hauek J.P.P.a (jarduera plan pertsonalizatua) dute eta moldaketak egiten zaizkie, bakoitzari bere beharrietara.

Hala ere, ikasle hauek orientazio departamentuko irakasleengatik ere laguntza jasotzen dute gela barnean, haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Gure helburua ikasleek era dinamiko batean oinarritzko jakintzak eta konpetentziak lantzea da pertsona arduratsu, autonomo, sortzaile eta kritikoa bihurtzeko. Bide hori jarraitu ahal izateko programazio hau haien beharrietara moldatuta dago.

Curriculum-plangintza				
Ikaskuntza egoeren izenburua (IkE)	Arloak, gaiak, eremua	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarritzko ezagutzak

		(Adierazi lotutako irteera- profilen deskribatzaile operatiboak)		
LEHENENGO HIRUHILEKOA				
JOLAS DENDA	EUSKERA	1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.	1.3	A: Hizkuntzak eta bere hiztunak. Eleaniztasuna A.5 A.7 A.8 B: Komunikazioa B.1.2 B.1.4 B.1.5 B.2.2 B.2.3 B.3.1 B.3.2 B.3.3 B.3.4 B.3.5 B.4.1 B.4.2
		2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.	2.1	
		3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.	3.2	
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	
		5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	
		6	6.2	

		HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII5, HK2, EK3		
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.2 9.3	
		10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.	10.1 10.2	B.4.3 B.5.1 C: Literatura hezkuntza C.3 D: Hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko hausnarketa, ahozko eta idatzizko testuak edo testu multimodalak
LETREN TXOKOA	EUSKERA	5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	sortzeko eta ulertzeko B: Komunikazioa B.1.2 B.4.1 B.4.3

AITABITXI/AMABITXI PROIEKTUA	EUSKERA	2 HKK2, KE2, STEM4, KD1,KD3, KPSII3, HK3.	2.1	A: Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna
		3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2,STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.	3.2	A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.6 A.7 A.8
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	B: Komunikazioa
		5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	B.3.2 B.3.3 B.4.6 B.5.1 B.5.2
		8 HKK1, HKK2, HKK4, KD2,KD3, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.		C: Literatura-hezkuntza
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.2 9.3	C.1 C.2 C.3 C.4 C.5 C.6

		<p>10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.</p>	<p>10.1 10.2</p>	<p>D: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan.</p> <p>D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8</p>
BIGARREN HIRUHILEKOA				
JOLAS DENDA	EUSKERA	<p>1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	1.3	<p>A: Hizkuntzak eta bere hiztunak. Eleanitztasuna</p> <p>A.5 A.7 A.8</p>
		<p>2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.</p>	2.1	<p>B: Komunikazioa</p> <p>B.1.2 B.1.4 B.1.5</p>
		<p>3</p>	3.2	

		HKK1, HKK3, HKK5, KE2,STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.		B.2.2 B.2.3
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	B.3.1 B.3.2 B.3.3 B.3.4 B.3.5
		5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	B.4.1 B.4.2 B.4.3
		6 HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII5, HK2, EK3	6.2	B.5.1
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.2 9.3	C: Literatura hezkuntza C.3
		10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.	10.1 10.2	D: Hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko hausnarketa, ahozko eta idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko preposamenen esparruan D.1 D.2 D.3 D.4 D.5

				D.6 D.8
LETREN TXOKOA eta ZENBAKIEN TXOKOA	EUSKERA	5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1 5.2	B: Komunikazioa B.1.2 B.4.1 B.4.3
		1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.	1.1 1.2 1.3	A: Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna A.1 A.2
IPUIN TXOKOA	EUSKERA	2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.	2.1 2.2	
		3	3.1	

		HKK1, HKK3, HKK5, KE2,STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.	3.2	A.3 A.4 A.5 A.6 A.7 A.8
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1	B: Komunikazioa
		7 HKK1, HKK2, HKK4, KD1,KD3, KPSII1, KAKK1, KAKK2, KAKK3	7.1	B.1.1 B.1.2 B.1.4 B.1.5 B.1.6
		8 HKK1, HKK2, HKK4, KD2,KD3, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.	8.1	B.2.1 B.2.2 B.2.3 B.2.4
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.2 9.3	B.2.5 B.2.6
		10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.	10.1 10.2	B.3.1 B.3.2 B.3.3 B.3.4 B.3.5 B.4.1 B.4.2

				<p>B.4.3</p> <p>B.5.1 B.5.2 B.5.5</p> <p>C: Literatura-hezkuntza</p> <p>C.1 C.2 C.3 C.4 C.5 C.6</p> <p>D: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan.</p> <p>D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8</p>
--	--	--	--	---

AITABITXI/AMABITXI PROIEKTUA	EUSKERA	1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.	1.3	A: Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.6 A.7 A.8 B: Komunikazioa B.3.2 B.3.3 B.4.6 B.5.1 B.5.2 C: Literatura-hezkuntza C.1 C.2 C.3 C.4 C.5 C.6
		2 HKK2, KE2, STEM4, KD1,KD3, KPSII3, HK3.	2.1	
		3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2,STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.	3.2	
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	
		5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	
		7 HKK1, HKK2, HKK4, KD1,KD3, KPSII1, KAKK1, KAKK2, KAKK3	7.1	

				D: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan. D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.2 9.3	
		10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.	10.1 10.2	
EROSKETAK EGITERA PROIEKTUA	EUSKERA	1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.	1.3	A: Hizkuntzak eta bere hiztunak. Eleanitzasuna A.5 A.7 A.8 B: Komunikazioa B.1.1 B.1.2 B.1.3 B.1.4 B.1.5 B.2.5 B.3.1
		2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3	2.1	
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	
		5 HKK1, HKK3, HKK4,	5.1 5.2	

		HKK5,KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.		B.3.2 B.3.3 B.3.4 B.3.5
		6 HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII5, HK2, EK3	6.1 6.2	B.4.1 B.4.2 B.4.3
		7 HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KD3, KPSII1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.	7.1	B.5.1
		8 HKK1, HKK2, HKK4, KD2,KD3, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.	8.1	C: Literatura hezkuntza C.3 D: Hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko hausnarketa, ahozko eta idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko preposamenen esparruan
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.1 9.2 9.3	D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				

JOLAS DENDA	EUSKERA	1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.	1.3	A: Hizkuntzak eta bere hiztunak. Eleanitztasuna A.5 A.7 A.8 B: Komunikazioa B.1.2 B.1.4 B.1.5 B.2.2 B.2.3 B.3.1 B.3.2 B.3.3 B.3.4 B.3.5 B.4.1 B.4.2 B.4.3 B.5.1 C: Literatura hezkuntza C.3
		2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.	2.1	
		3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.	3.2	
		4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	
		5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	
		6 HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII5, HK2, EK3	6.2	
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2,	9.2 9.3	

		KPSII5		D: Hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko hausnarketa, ahozko eta idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko preposamenen esparruan D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8
		10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.	10.1 10.2	
LETREN TXOKOA eta ZENBAKIEN TXOKOA	EUSKERA	5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1 5.2	B: Komunikazioa B.1.2 B.4.1 B.4.3

IPUIN TXOKOA	EUSKERA	<p>1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	<p>1.1 1.2 1.3</p>	<p>A: Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna</p> <p>A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.6 A.7 A.8</p> <p>B: Komunikazioa</p> <p>B.1.1 B.1.2 B.1.4 B.1.5 B.1.6</p> <p>B.2.1 B.2.2 B.2.3 B.2.4</p>
		<p>2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.</p>	<p>2.1 2.2</p>	
		<p>3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.</p>	<p>3.1 3.2</p>	
		<p>4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5</p>	<p>4.1</p>	
		<p>7 HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KD3, KPSII1, KAKK1, KAKK2, KAKK3</p>	<p>7.1</p>	

				<p>B.2.5 B.2.6</p> <p>B.3.1 B.3.2 B.3.3 B.3.4 B.3.5</p> <p>B.4.1 B.4.2 B.4.3</p> <p>B.5.1 B.5.2 B.5.5</p> <p>C: Literatura-hezkuntza</p> <p>C.1 C.2 C.3 C.4 C.5 C.6</p> <p>D: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta</p>
--	--	--	--	--

				<p>ulertzeko proposamenen esparruan.</p> <p>D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8</p>
		<p>8 HKK1, HKK2, HKK4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.</p>	8.1	<p>A: Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna</p> <p>A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.6 A.7 A.8</p> <p>B: Komunikazioa</p> <p>B.3.2 B.3.3 B.4.6 B.5.1</p>
		<p>9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5</p>	9.2 9.3	
		<p>10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.</p>	10.1 10.2	
	EUSKERA	<p>1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	1.3	

AITABITXI/AMABITXI PROIEKTUA	2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3.	2.1	<p>B.5.2</p> <p>C: Literatura-hezkuntza</p> <p>C.1 C.2 C.3 C.4 C.5 C.6</p> <p>D: Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan.</p> <p>D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.8</p>
	3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.	3.2	
	4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5	4.1 4.2	
	5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.	5.1	
	7 HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KD3, KPSII1, KAKK1, KAKK2, KAKK3	7.1	

		<p>9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5</p>	<p>9.2 9.3</p>	
		<p>10 HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.</p>	<p>10.1 10.2</p>	
<p>POSTALA PROIEKTUA</p>	<p>EUSKERA</p>	<p>1 HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	<p>1.3</p>	<p>A: Hizkuntzak eta bere hiztunak. Eleanitztasuna A.5 A.7 A.8</p>
		<p>2 HKK2, KE2, STEM4, KD1, KD3, KPSII3, HK3</p>	<p>2.1</p>	<p>B: Komunikazioa B.1.2 B.1.3 B.1.4 B.1.5</p>
		<p>3 HKK1, HKK3, HKK5, KE2,STEM4, KD2, KD3, KPSII1, HK2, HK3, EK1.</p>	<p>3.1 3.2</p>	<p>B.2.1 B.2.2 B.2.3 B.2.4 B.2.5</p>
		<p>4 HKK2, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5</p>	<p>4.1 4.2</p>	<p>B.3.1 B.3.2 B.3.3</p>
		<p>5 HKK1, HKK3, HKK4, HKK5,KE2, STEM4,</p>	<p>5.1 5.2</p>	

		KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2.		B.3.4 B.3.5
		6 HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII5, HK2, EK3	6.1 6.2	B.4.1 B.4.2 B.4.3
		8 HKK1, HKK2, HKK4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.	8.1 8.2	B.4.4 B.4.5 B.4.6 B.4.7
		9 HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5	9.1 9.2 9.3	B.5.1 C: Literatura hezkuntza C.3
		10 HKK1, HKK5, KE3, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.	10.1 10.2	D: Hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko hausnarketa, ahozko eta idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko preposamenen esparruan D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.7 D.8

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, anistazunari erantzuna, etab.

A. Jarraibide metodologikoak:

A.1. Eredu metodologikoak: Metodologia proiektutan oinarritutako ikaskuntzan eta arazo egoeretan oinarrituko da. Ikasleek ingurunea esploratuko dute, beren mailari egokitutako ikerketa zientifikoko metodoak erabiliz. Beste metodologia batzuk ere erabiliko dira, hala nola ikaskuntza kooperatiboa, non ikasleek taldean lan egingo duten arazoak konpontzeko eta emaitzak aurkezteko.

- 1. saioa: Asanblada bat egingo da non asteburuan egindakoa kontatzeko tartea izango duten. Horren ondoren, gelako maskotak bidalitako erronka aurkeztuko zaie (aste osoan zehar egin beharrekoa). Gero, 4.mailakoekin batera Aitabitxi eta Amabitxi proiektua egiten dute non irakurketa, idazketa, ahozkoa eta entzumena lantzen dute.
- 2. saioa: Oinarrizko jakintzak landuko ditugu jolasen bidez.
- 3. saioa: Letren Txokoa jolasen bidez landuko da, oinarrizko ezagutzak landuko dira, haiek (modu oso gidatuan) sortuko dituzten mahai jolasen bidez.
- 4. saioa: Liburutegia. Irakurketa librea landuko da eta ikasleak liburutegira eramango ditugu haiek aukeratutako liburuak irakurtzera. Ondoren, ipuin bat irakurriko zaie eta haren inguruko galderak egingo zaizkie ulertu dutela ziurtatzeko.
- 5. saioa: Ipuinen txokoa. Txokoka lan egingo da eta ipuinak sortzera bideratuta dauden ekintzak egingo dituzte txoko bakoitzean. Lehenengo hiruhileko honetan lehen, orain eta azkenik landuko dira.

Horrez gain, ikasturte osoan zehar, hiru proiektu burutuko dira. Proiektu hauek garatzen joateko, hilabete bakoitzeko azken astea erabiliko dute, eta hiruhileko bukaeran proiektuaren azken produktua sortuko dute; beraz, faseka lan egingo da.

Ikasleek euskera hizkuntzan murgiltzea, aberastea, sakontzea, baloratzea eta maitatzea da gure helburu nagusia. Horretarako jarduera oso dinamikoak egingo dituzte, non ahozko adierazmenak eta irakurketa eta idazketa prozesua garatzeak izango duen garrantzi gehien.

A.2. Multzokatzeak: Multzokatzeak malguak izango dira, proiektuaren fase desberdinetara egokituz. Talde txikietan antolatuko dira talde-lana eta ideien trukea sustatzeko; eta kasu askotan, txokoka ere lan egingo da, txoko batetik bestera aldatuko direlarik eginbehar zetzak egiteko. Multzokatze hauek komunikazio trebetasunak eta talde-lanean aniztasuna errespetatzeko gaitasuna garatuko dituzte. Talde handian ere askotan jardungo dugu, ahozko jarduerak egiteko batik bat. Banaka lan egiten ikastea ere garrantzitsua da, beraz, eta horrela ere arituko dira.

A.3. Espazioak: Ikasketa-espazio nagusia ikasgela izango da. Horrez gain, behar izatekotan beste espazioren batera mugitu gaitzke, behrrikanen arabera.

A.4. Baliabideak: Baliabide desberdinak erabiliko dira, besteak beste:

- Txokoetan lan egiteko fitxak eta baliabideak.
- Material multimedia eta interaktiboa (abestiak, entzungaiak eta bideoak).
- Jolas denda sortzeko baliabideak.
- Irakurketa liburuak.

A.5. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak: Hainbat jarduera proposatuko dira. Jarduera guzti hauek Euskera eta normalkuntza proiektuaren barne daude. Hala nola, euskeraren eguna, korrika edota herri-kirol eguna.

B. Aniztasunari arreta:

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, edukia eta jarduerak egokituko dira, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-erritmoaren eta premien arabera helburuak lor ditzan. Dibertsifikazio estrategiak erabiliko dira, hala nola laguntza-materialak, ikusizko laguntzak

eta azalpen egokituak. Egia bada ere talde-lanak izango direla gure oinarri, gelan landutakoa modu bisual eta argian eskuragai izan dezaten, mapa kontzeptualak banatuko zaizkie ikasle guztiei. Hauek ere baliagarri izango dira etxean gelan landutako birpasatu ahal izateko. Halaber, aurrerapen azkarra duten ikasleei jarduerak zabaltzeko aukera eskainiko zaie. Aniztasunari arreta horretan ikasle guztiek ekarpena egin dezakete, beren gaitasunen arabera.

Curriculum-a hasiera batetik egokitua egon behar da ikasleetara eta ez alderantziz. Horrela, curriculum pertsonalizatu eta praktikoagoa lortuz, non ikasle guztien beharrak erantzuten eta asetzen diren. Beraz, hori lortzeko Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala-ren (IDU) 3 printzipioak martxan jarri behar dira.

I. printzipioa: Ikasleei erraminta eta bide desberdinak emango zaizkie autonomiaz informazioa eta oinarritzko jakintzak eraikitzeko.

II. printzipioa: ikasleek ikasitakoa era desberdinetan adierazi ahalko dute: idatziz, ahoz eta abar. Bakoitzaren beharrezanetara moldatuko gara eta baita ebaluazioaren zein momentutan gauden.

III. printzipioa: ikasleei erronka ezberdinak aurkeztuko zaizkie era desberdinetan parte hartu ahal izateko eta era horretan ikasle guztiak ikaskuntza prozesuan konprometitu eta motibatu daitezke era desberdinetan.

C. Ebaluazioa :

Ebaluazioa jarraia izango da, eta honela burutuko da:

- Behaketa zuzena, jarduera eta proiektuetan ikasleek duten errendimendua neurtzeko.
- Ebaluazio errubrikak erabiltzea, konpetentzia zehatz eta jarrerazkoak baloratzeko (erantzukizuna, ingurunea errespetatzea eta elkarlana).
- Autoebaluazioa eta koebaluazioa, ikasleek beren lorpenak eta zailtasunak hausnartzen dituztenean, beren ikaskuntza-prozesuaren gaineko kontzientzia sustatzeko.

Gainera, ebaluazioaren barne dira ebaluazio kualitatibo eta kuantitiboak, edukien ulermena eta konpetentzien garapena neurtzeko.

D. Errefortzurako estrategiak eta berreskurapen-planak:

Konpetentzien ulermenean eta garapenean zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskainiko zaie:

- Banakako indartze-jarduerak eta talde txikietan.
- Tutoretza pertsonalizatuak eskaintzea, oinarrizko kontzeptuak berrikusteko.

Ebaluazio-erabakiak, ebaluaziotik ateratako ondorioak eta kalifikazio-irizpideak

Ebaluazioa

- Helburua (formatiboa, akreditatzailea)
- Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)
- Ebaluatze teknikak, tresnak eta erramintak
- Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)

- Helburua ebaluazio formatiboa izatea da.
 - Ebaluazio hezitzailea:
 - Ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan zehar.
 - Informazio bilketa jarraia.
 - Ikaskuntza- irakaskuntza gidatzeko eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko da.
 - Ebaluazio hezigarria: ikasleek bideratua.
- Finkatutako denborak: ebaluazioa prozesuaren hasieran, prozesuan zehar eta amaieran izango da.
- Ebaluatze teknikak:
 - Behaketa etengabe oinarrituta
 - Banakako eta taldeko jarduerak.
 - Fitxa ebaluagarriak.

	<ul style="list-style-type: none"> ● Eragileak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Koebaluazioak. ○ Autoebaluazioak. 										
<p>Ebaluazioaren ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kalifikazioa 	<p>Ikasle baten ikaskuntzari buruzko ebidentzia asko eta anitzak eskuratu eta gero, ebaluaziotik eratortzen den kalifikazioa lortuko dugu.</p> <p>Konpetentzia espezifikoak oinarri hartuta egingo da eta hauen zehaztapen maila lorpen adierazleak izango dira.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran boletin bate jasoko dute familiek. Boletin honetan irakasgai honetako konpetentzia espezifikoetan lortutako maila agertuko da: maila aurreratua, maila ertaina edo hasierako maila; kolorez adierazita.</p> <p>Honez gain, kurtso bukaeran eta Hezkuntza sailak ezarrita notak era kualitatibo baten jarri behar ditugu Hezkuntzako plataforman.</p>										
<p>Kalifikazio-irizpideak</p> <p>Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea ● Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea. ● Gaitasunen garapen-maila adostea ● Berariazko gaitasunen ponderazioa, ● ebaluazio-irizpideak... definitzea) 	<p>Azken kalifikazioa konpetentzia espezifikoaren ponderazioarekin lortuko da. Ondoren adierazten den konpetentzia espezifikoaren ponderazioa hartuko da kontuan.</p> <p><i>* Konpetentzia espezifiko guztien ponderazioa ez da zertan berdina izan.</i></p> <table border="1" data-bbox="770 1011 1975 1342"> <thead> <tr> <th data-bbox="770 1011 1404 1082">KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</th> <th data-bbox="1404 1011 1975 1082">PORTZENTAIK</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2" data-bbox="770 1082 1975 1147" style="text-align: center;">1. HIRUHILEKOA</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 1147 1404 1212">1.konpetentzia</td> <td data-bbox="1404 1147 1975 1212">%5</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 1212 1404 1278">2.konpetentzia</td> <td data-bbox="1404 1212 1975 1278">%25</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 1278 1404 1342">3.konpetentzia</td> <td data-bbox="1404 1278 1975 1342">%5</td> </tr> </tbody> </table>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	PORTZENTAIK	1. HIRUHILEKOA		1.konpetentzia	%5	2.konpetentzia	%25	3.konpetentzia	%5
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	PORTZENTAIK										
1. HIRUHILEKOA											
1.konpetentzia	%5										
2.konpetentzia	%25										
3.konpetentzia	%5										

	4.konpetentzia	%10
	5.konpetentzia	%25
	6.konpetentzia	%5
	7.konpetentzia	%5
	8.konpetentzia	%10
	9.konpetentzia	%5
	10.konpetentzia	%5
	2. HIRUHILEKOA	
	1.konpetentzia	%5
	2.konpetentzia	%15
	3.konpetentzia	%5
	4.konpetentzia	%15
	5.konpetentzia	%25
	6.konpetentzia	%5
	7.konpetentzia	%5
	8.konpetentzia	%15
	9.konpetentzia	%5
	10.konpetentzia	%5

3. HIRUHILEKOA	
1.konpetentzia	%5
2.konpetentzia	%15
3.konpetentzia	%5
4.konpetentzia	%15
5.konpetentzia	%25
6.konpetentzia	%5
7.konpetentzia	%5
8.konpetentzia	%15
9.konpetentzia	%5
10.konpetentzia	%5

1. ERANSKINA: KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eaeke eta inguruko **leaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea**, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.
2. **Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea**, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarritzko edukiko alderdiak baloratzuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-premiei erantzuteke.
3. **Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea**, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteke; ezagutza eraikitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarreraginetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea.
4. **Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea**, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarritzko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitzeke eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteke.
5. **Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea**, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarritzko estrategiak aplikatuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteke.
6. **Bi iturritatik edo gehiagotik datorren informazioa modu planifikatuan bilatzea, hautatzea eta egiaztatzea**, informazioaren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak ezagutuz, ezagutza eraldatzeko eta modu sortzailean jakinarazteke, ikuspuntu pertsonaletik eta jabetza intelektuala errespetatuz.

7. **Gustuen eta interesen arabera aukeratutako askotariko obrak autonomiaz irakurtzea**, irakurketa-esperientziak partekatuz, irakurle-nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna plazer-iturri gisa sustatzeko eta irakurketaren gizarte- eta kultura-dimentsioaz gozatzea.

8. Ikaslearen garapenerako egokiak diren **literatura-obrak edo horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta aztertzea**, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura-generoa eta haren oinarrizko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa ezagutzen hasteko eta plazer- eta ezagutza-iturri gisa eta literatura-asmoko testuak sortzeko inspirazio-iturri gisa ezagutzen hasteko.

9. **Hizkuntzari buruz gogoeta egitea**, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarrizko terminologia egokia erabiliz, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko.

10. **Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura jartzea**, hizkuntza ez-diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko.

2. ERANSKINA: EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KOMPETENTZIA

1.1. EAEko eta inguruneko **hizkuntzekiko interesa eta errespetua erakustea**, dibertsitatea gizarte- eta kultura-aberastasun gisa aitortuz eta baloratuz.

1.2. Ohikoak eta sarriak diren **hizkuntza eta kulturako aurreiritziak, diskriminazioak eta estereotipoak ezagutzea**, laguntzarekin eta hurbileko testuinguruetan, betiere ingurunearen eta eguneroko eta ohiko egoeren behaketa abiapuntu izanik.

1.3. **Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea**, eskola-bitzan euskararen aldeko jarrera azalduz, eta euskararen normalizazioaren aldeko jardueretan parte hartzea.

2. KONPETENTZIA

2.1 **Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzu orokorra ulertzea**, ideia nagusiak eta mezu esplizituak ezagutuz eta edukia eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarritzkoenak laguntzarekin baloratzen hasiz.

2.2 **Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea**, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.

3. KONPETENTZIA

3.1 **Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea**, hitzezkoak ez diren oinarritzko baliabideak erabiliz.

3.2 **Bat-bateko ahozko elkarrekintzetan parte hartzea**, hizkuntza-kortesiaren oinarritzko arauak errespetatuz, hizkuntzaren oinarritzko erabilera inklusiboa eginez eta jarrera kooperatiboa erakutsiz.

4. KONPETENTZIA

4.1 **Testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea**, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta ulertzeko oinarrizko estrategiak laguntzarekin erabiliz.

4.2 **Testu idatzi eta multimodal errazen edukia eta oinarrizko alderdi formalak eta ez-hitzezkoak laguntzarekin aztertzea**, testu horien edukia eta egitura baloratzuz.

5. KONPETENTZIA

5.1 **Testu idatzi eta multimodal errazak eta koherenteak zenbait euskarritan sortzea**, laguntzarekin eta emandako ereduarekin bat etorriz eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak kontuan hartuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena).

5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen **autoebaluaziorako eta koebaluaziorako tresnak eta oinarrizko irizpideak laguntzarekin erabiltzea**, sortutako zailtasunak identifikatuz.

6. KONPETENTZIA

6.1 **Bi iturritako, gutxienez, informazioa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak erabiltzea**, eredu jakin baten arabera eta teknologia digitalen erabilera segururako ohiturak hartuz.

6.2 Interes pertsonal edo akademikoko gairen bati buruzko **informazioa**, banaka nahiz taldean, **bilatzeko, hautatzeko eta egiaztatzeko** laguntzarekin egindako **prozesuaren emaitzak jakinaraztea**, tresna analogikoak eta digitalak erabiliz.

7. KONPETENTZIA

7.1 Beren **gustuekin eta interesekin bat datozen zenbait autoreren testuak irakurtzea** —irakurketaren prozesu ebolutiboko zenbait etapatatik laguntzarekin hautatutako testuak—, irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa baloratuz.

8. KONPETENTZIA

8.1 **Haur-literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko ahozko eta idatzizko askotariko autoreren testuak entzutea eta irakurtzea**, haien artean eta norberaren sentimenduekin eta bestelako adierazpen artistikoekin edo kulturekin oinarrizko erlazioak ezarriz, betiere lagunduta.

8.2 Idazketaren prozesu ebolutiboaren etapetara egokituko diren **testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, literatura-asmoz eta lagunduta sortzea**, eredu jakin batzuetara egokituz, zenbait euskarritan sortuz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.

9. KONPETENTZIA

9.1 **Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko oinarrizko ondorioak formulatzea**, hitzen arteko komunztadurari eta esanahi-erlazioei arreta berezia eskainiz, betiere hitzak eta esakuneak behatu, alderatu eta manipulatzetik abiatuta.

9.2 **Norberaren testuak berrikustea eta hobetzea**, eta irakurritakoa ulertzeko arazo batzuk laguntzarekin konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarrizko hizkuntza-terminologia egokia erabiliz.

9.3 **Transferentzia errazak laguntzarekin egitea**, hizkuntza koofizialetatik eta ikasleen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta.

10. KONPETENTZIA

10.1 Komunikazioaren hitzezko eta ez-hitzezko oinarrizko alderdiei buruzko taldeko gogoeta lagundutik abiatuta, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta, identifikatutako **hizkuntza-erabilera diskriminatzaileak baztertzea**.

10.2 **Entzute aktiborako eta adostasunerako oinarrizko estrategiak mobilizatzea**, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin, talde-lanean modu aktiboan parte hartuz, esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketan hasiz.

3. ERANSKINA: OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Hizkuntzak eta beren hiztunak. Eleaniztasuna

A.1 Norberaren **hizkuntza-biografia** eta **ikasgelako hizkuntza-dibertsitatearena**.

A.2 Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: **elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa**.

A.3 **Hizkuntza-aurreiritziak eta –estereotipoak laguntzarekin identifikatzeko estrategiak**.

A.4 **Hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea eta desberdinekiko errespetuzkoa**.

A.5 Eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan **euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa**.

A.6 Osagaiek (**egoera, parte-hartzaileak edo asmoa**) komunikazio-egintzan duten eragina.

A.7 Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziazko **abestiak** (sehaska-abestiak, hitz-parrastak...).

A.8 Ahozkotasunarekin lotzen diren **euskal kultura-tradizioak (Olentzero, Santa Ageda...)**.

B. Komunikazioa

B.1 Hizkuntzaren erabilerak HAMETIK AURRERA

B.1.1 Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.

B.1.2 Komunikazio-egintzako osagaien arteko elkarrekintzak (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa, kanala, erregistroa).

B.1.3 Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa, informazio-inferentziak) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarritzko elementuak.

B.1.4 Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.

B.1.5 Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarritzko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...).

B.1.6 Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzea.

B.2 Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza

B.2.1 Komunikazio-egintzaren araberako ahoskera eta intonazio egokiak.

B.2.2 Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta araututako testuinguru formaletan—, hizkuntza kortesiari eta hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioari buruzko arauak errespetatuz eta genero-ikuspegia kontuan hartuz.

B.2.3 Gatazkak elkarriketa bidez kudeatzeko prozesuan, entzute aktiboko estrategiak, asertibitatea eta sormenezko irtenbide-proposamena.

B.2.4 Zentzu orokorra, informazio garrantzitsua, informazio esplizituaren integrazioa eta inferentziak identifikatzeko eta interpretatzeko estrategiak, ahozko testu eta testu multimodal sozialen hitzez hitzeko esanahia gainditzeko.

B.2.5 Ezagutzaren eraikuntza, eta komunikazio eta balorazio kritikoa, betiere ahozko testuak eta testu multimodalak modu nolabait autonomoan planifikatzearen eta produzitzearen bidez.

B.2.6 Hitzezkoa ez den komunikazioaren oinarriko elementuak interpretatzeko eta erabiltzeko estrategiak.

B.2.7 Bertsolaritza, genero-analisia haren bilakaeran, eta euskal gizartean duen presentzia.

B.3 Irakurmena

B.3.1 Banako eta partekatutako irakurketa espresiboa, intonazio eta erritmo arinarekin.

B.3.2 Gero eta zailtasun handiagokoak diren elementu grafikoak, testualak eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.

B.3.3 Komunikazio-asmoa eta oinarriko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, azalpena eta argudioak.

B.3.4 Testu etenak (grafikoak, diagramak, mapak, denbora-lerroak, infografiak, ordutegiak...).

B.3.5 Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta baloratzeko estrategiak, informazio esplizitua integratzeko estrategiak eta inferentziak egiteko estrategiak, betiere testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuen barruan askotariko dokumentu-iturrietan dauden testuen hitzez hitzeko esanahia gainditzeko.

B.3.6 Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko hizkuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko estrategiak, testuak hobeto ulertzeko.

B.3.7 Hitzezko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.

B.4 Idatzizko produkzioa

B.4.1 Aurkezpen zaindua. Aurrerapena ortografia-arauen aplikazioan.

B.4.2 Idatzizko hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak eta jarraibideak.

B.4.3 Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatziak eta multimodalak planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarritzko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak. Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko estrategiak, idatzizko adierazpena hobetze aldera.

B.4.4 Testuaren antolaketa eta ulermena errazten duten elementu grafiko eta paratestual errazak.

B.4.5 Testu tipologiaren eta diskurtso-generoaren ereduak komunikazio-asmoaren arabera hautatzeko jarraibideak.

B.4.6 Ortografia-zuzentzaileak eta testu-prozesadoreen funtzionalitateak erabiltzen hasteko jarraibideak.

B.5 Informazio-alfabetatzea

B.5.1 Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan informazioa bilatzeko estrategiak, betiere fidagarritasun- eta bidezketasun-irizpideak kontuan hartuta.

B.5.2 Egitateak eta iritziak. Informazio-manipulazioa hautemateko estrategiak.

B.5.3 Informazioa alderatzeko, sailkatzeko eta baloratzeko estrategiak.

B.5.4 Ezagutzen sintesia egin eta berriro lantzeko estrategiak, ereduaren laguntzarekin.

B.5.5 Ezagutzaren sormenezko komunikazioa, jabetza intelektualak errespetatuz.

B.5.6 Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.

B.5.7 Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartu, tresna edo plataforma birtualak erabiliz eta zenbait komunikazio-helbururekin.

C. Literatura-hezkuntza

C.1 Literatura-obra osatzen duten elementuak (gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza), obraren zentzua gero eta autonomia handiagoz eraikitzean.

C.2 Literatura-generoaren oinarritzko elementuen eta obraren zentzua eraikitzearen arteko erlazioa.

C.3 Literatura-testuak gero eta autonomia handiagoz interpretatzeko oinarritzko teknikak.

C.4 Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.

C.5 Literatura-testuak modu librean eta emandako eruedetatik abiatuta sortzeko jarraibideak, genero-ikuspegia kontuan izanik.

C.6 Irakurle-nortasunaren eraikuntzan aurrerapausoak. Gustuak eta interesak adierazteko eta obren funtsezko balorazio kritikoa egiteko estrategiak.

C.7 Literaturaren eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko loturak.

C.8 Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura-jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.

D. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan

D.1 Hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidaturako estrategiak.

D.2 Azentuazioari buruzko orokortzeak behatu eta formulatzeko estrategiak.

D.3 Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Hitzak sortzeko oinarrizko mekanismo lexikoak.

D.4 Hizkuntza batean eskuratutako ezagutza metalinguistikoen transferentziak, gainerakoetan hizkuntza-gogoeta bultzatzeko.

D.5 Komunikazio-asmoarekin lotutako perpaus modalitateak.

D.6 Funtsezko koherentzia- eta kohesio-mekanismoak, arreta berezia jarriz ordezkapen pronominaleri —barne-erreferentziako mekanismo gramatikal gisa— eta aditz-denboren bidez ezarritako denbora-korrelazioari.

D.7 Zenbait euskarritako hiztegiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko funtsezko estrategiak.

D.8 Gogoeta metalinguistikotik abiatuta, norberaren eta besteen testuak berrikusi eta hobetzeko estrategiak.

D.9 Komunikazio eraginkorrean hizkuntza erabiltzeko arauak baloratzeko estrategiak.

